

→ ELGORRIA

KONTUZ

Espazio itxi batean egon bazara (adib. etxea, bulegoa, eskola) elgorria duen norbaitekin edo kutsatutako pertsona joan eta 2 orduko tartean leku horretan egon bazara, birusaz kutsatzeko arriskuan egon zaitezke.



OHARRAK

Elgorria izateko aukerak badituzu, kontuan hartu ohar hauek kontaktua izan ondorengo 21 egunetan:



Erreparatu sintomarik duzun.



Mugatu interakzio sozialak.



Erabili maskara.



Txertaketa: prebentzio-neurririk eraginkorrena da. 1970etik aurrera jaio eta infekzioa jasan ez dutenentzat eta txerto hirukoitz birikoaren 2 dosi jaso ez dituztenentzat da egokia. Gaixotasuna kutsatzeko arriskuan egon eta hurrengo 72 orduetan txertoa jarritz gero, gaixotasuna saihestu edo horren larritasuna arindu daiteke.



Haurdunaldia: txerto hirukoitz birikoaren dosia hartzen denetik gutxienez hilabete igaro arte haurdun ez geratzea gomendatzen da.

